4. Iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen denetik hamabost eguneko epea izango dute interesdunek beharrezkoak irizten zaizkien alegazioak egiteko eta egungo bizilekuaren berri emateko.

Mihaita Ionut Erofei	(sin documento)	Atxondoa zeharkalea 13, 2.esk
M.ª Mirabela Erofei	(sin documento)	Atxondoa zeharkalea 13, 2.esk
Elena Finica	X08835021-P	Atxondoa zeharkalea 13, 2.esk

Interesdunek epe horretan alegaziorik egin ezean, izapidetzen ari diren espedienteei eta ofiziozko bajei buruzko txostena egiteko eskaria bidaliko zaio Errolda Kontseiluari.

Markina-Xemeinen, 2012ko abuztuaren 13an.—Alkatea, Juan José Txurruka Txurruka

(II-6461)

4. Que se abre nuevamente un plazo de quince días hábiles a contar desde la publicación de este anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia» para que los interesados manifiesten lo que estimen conveniente y comuniquen cuál es el domicilio en el que residen habitualmente.

Mihaita Ionut Erofei	(sin documento)	Atxondoa zeharkalea 13, 2.esk
M.ª Mirabela Erofei	(sin documento)	Atxondoa zeharkalea 13, 2.esk
Elena Finica	X08835021-P	Atxondoa zeharkalea 13, 2.esk

Transcurrido el plazo del punto anterior sin que se haya presentado ninguna alegación por parte de la persona interesada, se remitirá una solicitud al Consejo de Empadronamiento para que formule un informe sobre los expedientes y las bajas de oficio que se tramitan.

En Markina-Xemein, a 13 de agosto de 2012.—El Alcalde, Juan Jose Txurruka Txurruka

(II-6461)

Bakioko Udala

Alkatearen ordezkapena

Bakioko alkateak abuztuaren 8ko 182/2012 zk. dekretuaren bitartez, erabagi hau hartu dau: «Alkate hau 2012ko abuztuaren 13tik hile horretako 27ra arte eta irailaren 3tik hile horretako 7ra arte Bakiotik kanpo egongo dan ezkero, honen bidez, Iker Muruaga Goikoetxea alkateordea izendatzen dot egun horreetan alkate zereginetan jardun daian. Izan be, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legearen 21. artikuluko 1go atalean azaltzen diranak izango dira jarduneko alkate horren eskumenak.

Dekretu honek 2012ko abuztuaren 13tik hile horretako 27ra arte eta irailaren 3tik hile horretako 7ra arte (egun horreek kontuan hartuta) iraungo dau indarrean.

Hori guztiori Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Erregalamenduaren 47. artikuluaren arabera».

Bakion, 2012ko abuztuaren 9an.—Alkatea, Aitor Apraiz Imatz

(II-6470)

Ayuntamiento de Bakio

Sustitución de Alcalde

El Sr. Alcalde de Bakio, por Decreto número 182/2012 de 8 de agosto, ha adoptado el siguiente acuerdo: «Designar al Teniente de Alcalde Iker Muruaga Goikoetxea, para que, durante los días comprendidos entre el 13 y el 27 de agosto y entre el 3 y el 7 de septiembre de 2012, realice funciones correspondientes al Alcalde, detalladas en el artículo 21.1) de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, por ausencia durante esos días del Alcalde que suscribe la presente.

Este Decreto surtirá efecto desde el día 13 hasta el 27 de agosto y desde el día 3 hasta el 7 de septiembre de 2012, dichos días inclusive.

Todo ello, conforme dispone el artículo 47 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales».

En Bakio, a 9 de agosto de 2012.—El Alcalde, Aitor Apraiz Imatz

(II-6470)

Leioako Udala

Zenbait espazioren eraikigarritasuna kalkulatzeari dagokion HAPOren aldaketa puntuala behin betiko onestea.

Udalaren Osoko Bilkurak 2012ko uztailaren 25ean egindako batzarrean hartu zuen 5. erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen HAPOren aldaketa puntuala, zenbait espazioren eraikigarritasuna kalkulatzeari dagokiona.

Hau da hitzarmenaren eduki osoa:

«5. Leioako HAPOren aldaketa puntuala behin betiko onestea, zenbait espazioren eraikigarritasuna kalkulatzeari dagokiona Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordean hartutako 2012ko uztailaren 17ko 80. irizpenaren berri eman zaio udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen hitzez hitz irizpenak dioena:

Alkatetza Udalburutzak 2012ko ekainaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako 157. Ebazpenaren bidez, batzordeak 2012ko maiatzaren 29an hartutako 50. irizpena berretsi zen; honako eduki hau zuen:

«Plan Orokorrean aurrez ikusita eta kudeaketa lanetan aurreratuta dauden zenbait hirigintza proiektu garatzeko interesa agertu dute enpresa sustatzaile batzuek, eta horien ordezkariekin hitz egin ondoren Udal Zerbitzu Teknikoek elkarrizketen emaitzen berri eman dute; besteak beste, HAPO-Leioandiko 38. sektorearen gaineko interesa dute, hirigintza merkatuak beherakada nabarmena izan duen arren». Horren haritik, beste udal batzuek bezala (esaterako, Gas-

Ayuntamiento de Leioa

Aprobacion definitiva de la modificación puntual del P.G.O.U. relativa al computo de la edificabilidad de determinados espacios.

Mediante acuerdo plenario número 5 adoptado en la sesión celebrada el 25 de julio de 2.012, se ha procedido a la aprobación definitiva de la Modificación Puntual del P.G.O.U. relativa al cómputo de la edificabilidad de determinados espacios.

El contenido íntegro del acuerdo es el siguiente:

«5. Aprobacion definitiva de la modificación del P.G.O.U. RELATIVA al computo de la edificabilidad de determinados espacios. Se sometió a la ratificación del Ayuntamiento Pleno, el dictamen número 80, adoptado en la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente, de fecha 17 de julio 2012, cuyo tenor literal es como sigue:

Por resolución número 157 adoptada por la Alcaldía-Presidencia en la Junta de Gobierno Local el día 5 de junio de 2012, se ratificó el dictamen número 50 adoptado por esta Comisión el día 29 de mayo de 2012, con el siguiente contenido:

«Por medio de los Servicios Técnicos municipales se da cuenta del resultado de diversas conversaciones mantenidas con representantes de empresas promotoras interesadas en desarrollar proyectos urbanísticos previstos en el Plan General y en avanzados estado de gestión, como por ejemplo el sector 38 del P.G.O.U.-Leioandi, a pesar de la brutal caída del mercado inmobiliario. En concreto, al igual que otros Ayuntamientos, como por ejemplo el de

cve: BAO-BOB-2012a160

teizkoak), HAPOren ordenantzaren artikulu bat aldatzeko eskatu dute, hain zuzen ere hirigintza aprobetxamendua kalkulatzeko modua zehazten duena; hala, modu partekatuan erabiltzeko gune diafanoak ez dira aintzat hartuko, besteak beste eskailera begiak, atariak, etab.

Udal Bulego Teknikoak aldatzeko proposamena egin du, eta horren bidez 7.1.12 artikulua («Hirigintza aprobetxamendua kalkulatzeko modua») honela geratuko litzateke:

«Azalera eraikigarria lursail batean egin daitekeen eraikin baten gehieneko balioa da, eta eraikitako metro koadrotan adierazten da. Azalera eraikigarrien gehikuntzan solairu guztien azalera eraikia jasoko da, sestra gainekoa eta azpikoa, betiere garaje gisa edo garajeko solairuen arteko lotura aldapa gisa erabiltzen ez bada.

Kalkulutik kanpo gelduko dira, halaber:

— Eraikinaren barruko patioak edo fatxadara irekitakoak
— Ataripe eta beheko solairu gardenak, altuera tipologia duten eraikinetan.
— Hala badagokio, makineria gela gisa, igogailuetarako edo erkidegoko beste instalazio batzuetarako erabiliko diren azalerak.
— Ganbara edo trasteleku bana etxebizitza bakoitzeko, gehienezko azalera erabilgarria 12 m² baldin bada altueran egindako eraikinetan, edo 30 m² egitura atxikiko etxebizitzetan.
— Atariak, igogailuak eta eskailera kutxak hartutako azalera, garatutako tarte osoan.
— Bizikleten gela, zarama biltzeko lokalak (NTEk aurrez ikusitakoak).
— Garajeak eta solairu arteko lotura aldapak, sestra gainean egon zein sestra azpian egokitzen badira.
— Instalazioen zuloak, behar bezala justifikatuz gero.
— 1,5 metro baino gutxiagoko altuera duten azalerak
— Etxebizitzetako terrazak, balkoiak eta hegalkin irekiak beren azaleraren %100ean kalkulatzen dira. Ez dira aintzat hartzen sabairik ez duten aire zabaleko balkoi eta terrazen azalerak, ez eta solairu bat baino gehiagoko eraikinen beheko solairuan irekiak diren arkupeak eta ataripeak ere.
— NTEk eskatutako aurreko atariak
— Sabairik ez duten terrazak, balkoiak eta hegalkin irekiak, ez eta solairu bat baino gehiagoko eraikinetako beheko solairuan irekitako ataripeak edo arkupeak ere.
— Tarteko solairuen azalera, beheko solairuaren kotarekin alderatuta duten desnibela dela-eta, ez da hirigintza-aprobetxamendu gisa kontabilizatzen. Tarteko solairutzat hartzen da forjaketaz, habez eta pilarez egindako egitura, bigarren erabilera bat emateko eraiki dena: biltegi bat, biltegi-erakusketa bat, jarduera nagusia kudeatzeko bulego txiki bat, etab.
— Dagoen altuera askea 5,90 metrotik gorakoa denean eraiki ahal izango da, eta tarteko solairuaren azpian gutxienez 3,25 metroko altuera eta gainean 2,50 metrokoa uzten denean. Tarteko solairuaren aurreko aldeak atzera-emangunea eratu beharko du fatxada nagusiaren lerrokaduran. Atzera-emangune horren distantzia tarteko solairua atzeko fatxadari itsatsita lortuko da. Tarteko solairuak ezin izango du lokalaren azalera erabilgarriaren %80 baino gehiago izan, lokala altuera bikoitzeko espaziotzat har dadin.

Bilduko ordezkariak aldaketa proposamenaren aurka agertu dira, eta azaldu dute udalak ez diela enpresa sustatzaileei mesede egin behar eraikigarritasuna handituz. Enpresa horien xedea sustatzea baldin bada, etxebizitzen salneurriak jaitsi beharko lituzkete. Eraikigarritasuna handitzea etxebizitza berrien erosleek ordainduko dutela uste dute. Haien aburuz, eraikigarritasuna handitzearen aurrean lagapen estandarrak betetzea justifikatu behar da, esaterako berdeguneak.

Vitoria-Gasteiz, han solicitado una modificación del artículo de la ordenanza del P.G.O.U. que concreta el modo de computar el aprovechamiento urbanístico, de tal manera que no se contabilicen espacios diáfanos de uso comunitario como huecos de escaleras, portales, etc.

La Oficina Técnica municipal ha realizado una propuesta de modificación en la que el artículo 7.1.12. «Modo de computar el aprovechamiento urbanístico», queda redactado de la siguiente forma:

«Superficie edificable es el valor máximo, expresado en metros cuadrados construidos, de la edificación que puede realizarse sobre una parcela. En la suma de superficies edificables se incluirá la superficie construida de todas las plantas sobre y bajo rasante, siempre que no estén dedicadas al uso de garaje o de rampa de conexión entre los distintos niveles de garaje.

Quedarán también excluidas del cómputo:

— Los patios interiores de la edificación o abiertos a fachada.
— Los soportales y plantas bajas diáfanas en edificios con tipología en altura.
— Las superficies destinadas, en su caso, a sala de maquinaria y ascensores u otras instalaciones comunitarias.
— Un camarote o trastero por vivienda cuya superficie útil no exceda de 12 m² en edificios en altura o de 30 m² en viviendas de tipología adosada.
— La superficie ocupada por el portal, el ascensor y la caja de escaleras en todo su desarrollo.
— El cuarto de bicicletas, los locales destinados a depósitos de basura previstos en la NTE.
— Los garajes y rampas de conexión entre plantas distintas, tanto si se encuentran sobre rasante como si se habilitan bajo rasante.
— Los huecos de instalaciones, caso de que estén debidamente justificados.
— Las superficies con altura inferior a 1,5 metros.
— Las terrazas en los pisos, los balcones y los vuelos abiertos computan al 100% de su superficie. No computan las superficies de balcones y terrazas al aire libre que no tengan techo, ni tampoco los pórticos o soportales abiertos en planta baja de edificios de más de una planta.
— Los vestíbulos previos exigidos por la NTE.
— Las terrazas, balcones y vuelos abiertos que no tengan techo, ni tampoco los pórticos o soportales abiertos en planta baja en edificios de más de una planta.
— La superficie de las entreplantas, dado el desnivel que presentan en relación con la cota de planta baja, no se considera superficie sujeta a cómputo de aprovechamiento urbanístico, entendiéndose por «entreplanta» la estructura de forjado, vigas y pilares construidos con el fin de dar un uso secundario del principal; almacén.
— Almacén-exposición, pequeña oficina de gestión de la actividad principal, etc. Se podrá construir cuando la altura libre existente sea mayor de 5,90 m., y la altura que se deje como mínimo debajo de la misma pueda ser de 3,25 m. y la que se deje sobre ella sea de 2,50 m. El frente del entrepiso deberá ir retranqueado en relación con la alineación de fachada principal una distancia tal que se deduce de adosar la entreplanta a la fachada trasera con una superficie que no supere el 80% de la superficie útil del local, a efectos de que el local se entienda como un espacio de doble altura.»

Los representantes de Bildu muestran su criterio contrario a la propuesta de modificación señalando que el Ayuntamiento no tiene que favorecer a las empresas promotoras aumentando la edificabilidad. Si estas mercantiles desean promover, lo que tienen que hacer es bajar los precios de los pisos. Consideran que el aumento de edificabilidad lo pagan los compradores de las nuevas viviendas. Entienden que debe justificarse el cumplimiento de los estándares de cesiones como zonas verdes, ante el aumento de edificabilidad.

cve: BAO-BOB-2012a160

Batzordeko idazkariak zehaztu du argi dagoela lagapen estandarrak bete egin behar direla.

HAPOren hirigintza aurreikuspenak gauzatzea ahalbidetuko duen udalaren bultzada oro positibotzat jo dute Euzko Abertzaleak taldeko, Euskal Sozialistak taldeko eta Alderdi Popularreko ordezkariek; modu demokratikoan onetsi da eta hiria modu antolatuan hazteko aukera emango du; izan ere, auzoak lotuko ditu, aisialdi guneak sortuko dira, prezio babestuko etxebizitzak eskainiko dira, lana bultzatuko da, etab.

Hirigintza eta Etxebizitza, Herri Lan eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak jarduketa hauen jatorria adierazi zuen:

— HAPOren ordenantzak aldatzeari hasierako onespena emango zaio, Udal Zerbitzu Teknikoek zehaztutakoarekin bat etorriz hirigintza aprobetxamendua kalkulatzeko moduari dagokiona. Planeamenduaren aldaketa xehatua denez, hasierako onespena emateko eskumena alkatetza-burutzarena litzateke.

— Hasierako onespena eman ondoren, BAOn eta prentsan iragarkiak jarrita jendaurrean jarriko da espedientea 20 egunez, alegazioak egin ahal izateko.

— Ondoren, behin betiko onartuko da dagokion osoko bilkuraren akordio bidez, betiere Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko larrialdiko neurriak garatzen dituen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 30. artikuluaren arabera. Aldaketa hau arlo edo sektore bakoitzean gauzatzea hirigintza lagapenei buruzko legedia zuzen betetzearen mende dago.

Irizpen hau Bilduko ordezkarien aurkako botoarekin onartu zen.»

Dagozkion iragarkiak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta hedabideetan argitaratu ondoren, ezarritako epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu, eta horrenbestez, auzia berriz ere eztabaidagai izan dute Osoko Bilkurak behin betiko onespena eman diezaion.

Bilduko ordezkariek gogorarazi dute eraikigarritasuna handituz gero, lagapen estandarrak betetzea justifikatu behar dela.

Batzordeko idazkariak azaldu duenez, gaiari buruzko eztabaida izan zuten HAPO-Leioandiko 38. sektorea garatzea sustatzen duten enpresek hala eskatu zutelako; sektoreak sistema lokalen sarearen hornidura publikoetarako erreserba handia du, hirigintza araudiak eskatutako gutxienekoa baino nabarmen handiagoa. Hain zuzen ere, eta Plan Partzialean dauden datuekin bat etorriz, honako hau ondorioztatu da:

— Sistema lokaletako sarearen hornidura publikorako eskatutako gutxieneko erreserba: Sabaiaren 25 m² bakoitzeko 10 m² lurzoru: SSL = 10 x 62.288 : 25 = 24.915 m² lurzoru.

— 38. sektorean laga beharko diren sistema lokalak:

Kontzeptua	Azalera
Berdeguneak	16.321 m²
Ekipamenduak	12.000 m²
Bide publikoak	17.928 m²
Guztira	46.249 m²

Hau da, alegatu daiteke estandarrak betetzea ez dela justifikatu behar, eraikigarritasun koefizientea ez baita aldatu, zenbait espazio neurtzeko modua besterik ez delako aldatu. Hala ere, eraikigarritasuna areagotu daiteke, baina inolaz ere % 10 baino gehiago; ehuneko hori hirigintza legediak sistema lokaletarako sareko hornidura publikorako eskatzen duen gehienezko erreserba baino nabarmen txikiagoa da.

Hirigintza eta Etxebizitza, Herri Lan eta Zerbitzu, eta Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi zuen egokia zela udaleko Osoko Bilkurak jarduketa hauek onartzea:

El Secretario de la Comisión, informa que evidentemente deberán cumplirse los estándares de cesiones.

Los representantes de Euzko Abertzaleak, Socialistas Vascos y Partido Popular, entienden como positivo cualquier impulso del Ayuntamiento que posibilite materializar las previsiones urbanísticas del P.G.O.U., aprobado democráticamente, posibilitando un crecimiento ordenado de la ciudad, uniendo barrios, creando zonas de esparcimiento, ofertando vivienda de precio protegido, impulsando el empleo, etc.

La Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente dictaminó la procedencia de las siguientes actuaciones:

— Aprobar inicialmente la modificación de las ordenanzas del P.G.O.U. conforme a lo señalado por los Servicios Técnicos municipales en lo que respecta al modo de computar el aprovechamiento urbanístico. Al tratarse de modificación de planeamiento pormenorizado, la competencia para la aprobación inicial será de la Alcaldía-Presidencia.

— Una vez aprobado inicialmente se expondrá al público el expediente a efectos de alegaciones durante el plazo de 20 días mediante la inserción de anuncios en B.O.B. y prensa diaria.

— Posteriormente se aprobará con carácter definitivo mediante el correspondiente acuerdo plenario, todo ello de acuerdo al artículo 30 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en el desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. La ejecutividad de esta modificación en cada área o sector queda condicionada al efectivo cumplimiento de la normativa en materia de cesiones urbanísticas.

El presente dictamen se adoptó con el voto en contra de los representantes de Bildu».

Una vez publicados los pertinentes anuncios en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y prensa diaria, en el plazo establecido al efecto no se ha presentado alegación alguna, procediendo a debatir nuevamente el asunto a efectos de su aprobación definitiva por el Ayuntamiento Pleno.

Los representantes de Bildu recuerdan que debe justificarse el cumplimiento de los estándares de cesiones, ante el aumento de edificabilidad.

El Secretario de la Comisión expone que esta modificación fue debatida en su momento a instancia de las empresas promotoras del desarrollo del Sector 38 del P.G.O.U.-Leioandi, sector que dispone de una amplia reserva para dotaciones públicas de la red de sistemas locales muy superior a la mínima requerida por la normativa urbanística. En concreto, y conforme a los datos existentes en el Plan Parcial resulta lo siguiente:

— Mínimo de reserva requerida para dotaciones públicas de la red de sistemas locales: 10 m² de suelo por cada 25 m² de techo: SSL = 10 x 62.288 : 25 = 24.915 m² suelo.

— Sistemas locales que deberán cederse en el Sector 38:

Concepto	Superficie
Zonas verdes	16.321 m²
Equipamientos	12.000 m²
Vías públicas	17.928 m²
Total	46.249 m²

Es decir, aunque puede alegarse que no es necesario justificar el cumplimiento de estándares porque no se altera el coeficiente de edificabilidad, sino la forma de medir determinados espacios, el posible incremento de edificabilidad que puede darse en ningún caso superará el 10%, porcentaje muy inferior al de exceso de reservas para dotaciones públicas de la red de sistemas locales requerido por la normativa urbanística

La Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente dictaminó la procedencia de que el Pleno del Ayuntamiento apruebe las siguientes actuaciones:

cve: BAO-BOB-2012a160

— HAPO aldatzeko proposamena, zenbait espazioren eraikigarritasuna zenbatzeari dagokiona, behin betiko onestea.

— Dagokion iragarkia eguneroko prentsan argitaratzea (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikulua).

— Bizkaiko Foru Aldundira espedientea bidaltzea, Plangintzaren Euskal Erregistroan sartzeko.

— «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» behin betiko onespenaren hitzarmen osoaren edukia eta hirigintza arauak argitaratzea, Plangintzaren Euskal Erregistroan aldaketa jaso dela adieraziz.

Irizpen hau Bilduko ordezkarien aurkako botoarekin onartu zen, hasierako onespen fasean azaldutako argumentuetan oinarrituz.

Bozketa eta osoko bilkuraren erabakia

Udalaren Osoko bilkurak, aldeko hamazazpi botoren gehiengoarekin (Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi ordezkariak, EB-Bko ordezkaria, Euskal Sozialisten lau ordezkariak eta PP Udal Taldeko hiru ordezkariak), BILDUko ordezkarien ezezko lau botoen aurrean, erabaki du behin betiko onestea HAPOko aldaketa, Hiri Antolamendurako Plan Berezia, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzu; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenaren baldintza berdinetan.

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta bere kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa ipini ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren Salan. Bi hilabeteko epea egongo da horretarako, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, egokitzat jotzen den beste edozein neurri ere hartu ahal izango da.

Leioan, 2012ko abuztuaren 9an.—Behin-Behineko Alkatea, Jon Peli Lazkano Alzaga

(II-6471)

●

Santurtziko Udala

IRAGARKIA

Behean zerrendatzen diren interesatuei, dela helbidean ez egoteagatik, helbide ezezaguna izateagatik zein bestelako ziorengatik, ezin izan zaizkie jakinarazi ondoan adierazten diren Udal honetako Udalbatzarraren eta Udal Gobernu Batzordearen akordioak eta, halaber, Alkatearen erabakiak egin ditzaten. Beraz, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen 30/92 Legearen 59-4 artikuluak eta horrekin bat datozen arauek ezartzen dutenaren arabera, iragarki hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta Udal iragarkitegian argitaratzeari heltzen zaio.

Akordio eta erabakiak interesatuei emango zaizkie Udal Idazkaritza Nagusian.

Santurtzin, 2012ko, abuztuaren 10ean.—Jarduneko Idazkari Nagusia, Enrique Orrite Pinedo

— Aprobar definitivamente la propuesta de modificación del P.G.O.U. relativa al cómputo de la edificabilidad de determinados espacios.

— Publicar el correspondiente anuncio en prensa diaria (artículo 89 Ley 2/2006, de 30 de junio).

— Remitir el expediente a la Diputación Foral de Bizkaia a efectos de su inclusión en el Registro Vasco de Planeamiento.

— Publicar en el «Boletín Oficial de Bizkaia« el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas con indicación de haberse producido el depósito de la modificación en el Registro Vasco de Planeamiento.

El presente dictamen fue adoptado con el voto en contra de los representantes de Bildu, en base a los argumentos señalados en la fase de aprobación inicial.

Votación y acuerdo plenario

El Ayuntamiento Pleno, por mayoría de diecisiete votos a favor emitidos por los nueve representantes de Euzko Abertzaleak, uno de la representantes de EB-B, cuatro de los representantes de Socialistas Vascos y tres de los representantes del Grupo Municipal del Partido Popular; frente a cuatro votos negativos de los representantes de BILDU, acordó aprobar definitivamente la modificación del P.G.O.U. relativa al cómputo de la edificabilidad de determinados espacios, en los mismos términos que el dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente.

Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, a contar del día siguiente al de la publicación de este anuncio, ante la Sala de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente.

En Leioa, a 9 agosto de 2012.—El Alcalde Acctal., Jon Peli Lazkano Alzaga

(II-6471)

●

Ayuntamiento de Santurtzi

ANUNCIO

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59 (4 y 5) Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y legislación concordante, no habiendo podido notificar, de forma expresa, a los interesados que al final se relacionan los acuerdos tomados por el Ayuntamiento Pleno y la Junta de Gobierno Local, así como Decretos de la Alcaldía de este Ayuntamiento, por no hallarse en su domicilio, ignorar este u otras causas, se hace público el presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y Tablón de Anuncios Municipal.

Los interesados, tendrán a su disposición en la Secretaría Municipal los acuerdos y resoluciones mencionados para su entrega.

En Santurtzi, a 10 de agosto de 2012.—El Secretario General en funciones, Enrique Orrite Pinedo

C_G C_G	Erakundea Organismo	Helbidea Direccion	Herria Ciudad	Probintzia Provincia	Espte. Expte.	Zkia. Número
01/03/2011	Izar Berria Gaztetxoak	Dr. Fleming, 28, 2.° D	Santurtzi	Bizkaia	JGL 7/11-II-07	1234
01/03/2011	Beascoehea Escolano, Eneko	Udiarraga, 1-B 4.°D	Ugao-Miraballes	Bizkaia	JGL 7/11-II-08	1492
08/03/2011	Sanchez Rodríguez, Blanca	Sebastian Elcano, 9-2.°-derecha	Santurtzi	Bizkaia	JGL 8/11-VI-02 UR	1874
22/03/2011	Marcos Gómez, Eva María	Juan de Garay, 10-3.°-izquierda	Santurtzi	Bizkaia	JGL 10/11-VI-20	2198
05/04/2011	LANBIDE (Javier Ramos Salazar)	Nieves Cano, 29 D	Vitoria-Gasteiz	Araba	JGL 11/11-V-42	2337
12/04/2011	Ainhoa González Loimil	Juan Crisostomo de Arriaga 15 A 2.°-C	Santurtzi	Bizkaia	JGL 12/11-VI-47	3237
05/07/2011	Astilleros Zamakona, S.A.	Puerto Pesquero, s/n	Santurtzi	Bizkaia	JGL 22/11-V-29	5336
13/12/2011	Centro Casa Galicia	Gabriel Aresti, 6-8	Santurtzi	Bizkaia	JGL 36/11-V-26	7619
03/04/2012	Pérez Fernández, José M.ª	Mamariga, 96-Bajo-izquierda	Santurtzi	Bizkaia	JGL 11/12-VI-40	1471
17/04/2012	Construcciones y Reformas Galdames	General Castaños, 89 Bajo Izda.	Portugalete	Bizkaia	JGL 12/12-I-02 UR	1834

(II-6485)

cve: BAO-BOB-2012a160